

Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien dimentsio ekonomikoaren azterketa

LABURPEN
EXEKUTIBOA



1 | LABURPEN EXEKUTIBOA

Dokumentu honetan Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak garatutako proiektu baten emaitza aurkezten da. Proiektu horren helburua Kultura eta Sormen Industrien (KSI) alderdi ekonomikoa aztertzea da, baita Euskadiko industria-sarean duten txertatze-maila ere, betiere industria horien sustapenerako politika publikoak ezartzen lagunduko duen informazio-iturritzat erabiltzearen. Gainera, lan honen bitartez, Jaurlaritzaren beste sail batzuekiko elkarrizketa gurutzatua ahalbidetuko duten testuinguruko elementuak ere ekarri nahi dira, denen artean KSlen sustapena indartzeko asmoz.

Horretarako, hasteko, KSlen perimetroa zehaztu da (bibliografia ikusi), hau da, zein diren enpresa horiek osatzen dituzten jarduerak, lotutako lanbideak eta kultura- eta sormen-edukia duten produktu eta zerbitzuak. KSlen balio-kateak osatzen dituzten jarduera homogeneoetan multzokatu ahal izateko baldintzak betetzen ditu perimetro horrek eta, horretaz gain, beste eremu geografiko batzuekin alderatzea, Euskadiren ezaugarri espezifikoetara egokituta egotea eta politikak definitzera bideratzea ahalbidetzen du.

Oro har, Euskadiko KSletan 16.886 enpresa biltzen dira eta 33.983 lagunek egiten dute lan enpresa horietan, hau da, guztizko enpleguaren % 3,84 osatzen du. **Sormen-industrien** kasuan, 13.433 langile daude 9.737 enpresatan (enpleguaren % 1,5), eta Arkitekturaren eremuak sortzen du enplegu gehien. **Kultura-industrien** kasuan, 20.550 langile ari dira 7.149 enpresatan, eta Euskadiko enpleguaren % 2,34 osatzen dute.

KSlek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertuz gero, bai **kultura**ren arloko, bai **sormen**aren arloko enpresen kopuruak apur bat jaitsi ziren 2010etik 2015era bitarte, eta gerora susperraldia izan dute, hasierako mailak ere gaindituta. Azken hamarkadan, **kultura**-enpresak -% 5,5 gutxitu dira, eta **sormen**-enpresak, berriz, % 15,2 ugaritu, hizkuntzaren eta diseinuaren arloetako industrien eraginez, funtsean, % 53,42 eta % 48,77 handitu baitira, hurrenez hurren.

KSlen jarduerak Lurralde Historikoaren arabera nola banatzen diren begiratzuz gero, Bizkaian daude egoitza Euskadin duten enpresen % 51,3, Gipuzkoan % 36,4 eta Araban % 12,3. Banaketa horri egonkor samar eusten zaio KSlen eremu guztietan, honako hauetan izan ezik: Ondarea, Museoak, Artxiiboak eta Liburutegiak; horietan Gipuzkoak % 46 osatzen du, Bizkaiak % 38 eta Arabak % 16.

KSlak bi ikuspegi osagarritatik aztertu dira; 1) balio-katearen ikuspegitik begiratuta eta 2) KSlak osatzen dituzten jarduera moten ikuspegitik begiratuta.

Balio-katearen ikuspegiak zera adierazten du, sormenezko eta/edo kulturako edukia duen ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko helburua duten jardueren artean zer nolako harremana dagoen (fluxu ekonomikoak, produktuak, zerbitzuak, ezagutza). Ikuspegi hori garrantzitsua da sormenezko eta kulturako produktuen edo zerbitzuen eskaintza eta eskaria ez ezik, horrek sortzen duen jarduera ekonomikoa ere ulertzeko.

Jardueren motaren (edo jarduera-adarren) ikuspegiak kulturako eta sormenezko jardueren antolatze bidea ematen du, jarduera motaren antzekotasunaren arabera (manufakturakoa, informatikoa, hezkuntzakoa eta abar), eta jarduera horiek multzokatzeko aukera ere ematen du, garapenerako premia komunak partekatzen dituzten taldeetan (besteak beste, teknologiakoak, antolaketakoak, elkartegintzakoak, esportazioa sustatzekoak eta abar), eta, beraz, politika homogeneoak eragin ditzakete.

Balio-katearen ikuspegitik begiratuta, honako sektore hauek nabarmentzen dira sortu duten enplegua dela eta: **ikus-entzunezkoen eta multimediarren sektorea** (5.972 langile), **Liburua eta prentsa** (5.853 langile), **Arte Eszenikoak** (4.077 langile) eta **Arkitektura** (4.002 langile). Enpresa kopuruari dagokionez, **Hizkuntzaren industriak** (4.141 enpresa) eta **Arkitektura** (3.113 enpresa) dira adierazgarrienak.

KSlen ezaugarria da batez besteko tamaina txikia izatea (2,01 langile/enpresa) eta, funtsean, autonomoak direla gehienbat (% 60,2 **kultura**-industrietan eta % 74 **sormen**-industrietan).

KSlak motaren arabera aztertuz gero (zer jarduera-adarretakoak diren), sei segmentu bereiz daitezke, hurrengo taulan ikus daitekeenez. Taulan identifikatutako segmentu bakoitzari esleitutako jarduerak segmentu edo jarduera-adar bakoitzeko guztizko enpleguaren % 90 baino gehiago dira. Gainera, jarduera-adar bakoitzaren gainerako ehunekoa osatzen duten jarduerak ere agertzen dira taulan.

1. TAULA. KSI JARDUEREN SEGMENTAZIOA, MOTAREN ARABERA (ZER JARDUERA-ADARRETAKOAK DIREN)

	Manufakturakoak	Merkataritzakoak	Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista eta Informatika	Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.	Hezkuntza	Jolas- eta kultura-jarduerak
KSI guztizko enpleguaren ehunekoa	% 11,8	% 3,9	% 24,0	% 33,6	% 10,8	% 15,8
Jarduera-adarreko ordezkaturako eremuetako enplegua (>% 90)	Liburuak eta prentsa. Arte grafikoak, liburuen aurreinprimaketa eta inprimaketa Moda-fabrikazioa	Liburuak eta prentsa. Merkaturatzea.	Ikus-entzunezkoak eta multimedia Liburuak eta prentsa	Arkitektura Publizitatea Diseinua Itzulpengintza eta interpretazioa Arte bisualak	Hizkuntzaren industriak Musika	Arte eszenikoak Arte bisualak Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak.
Gainerakoa (<% 10)	Musika	Musika	Musika Bideojokoak Publizitatea/Web-atariak	Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak Arte eszenikoak Liburuak eta Prentsa Ikus-entzunezkoak eta multimedia		

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

KSI jarduerak oso garrantzitsuak dira **J. Edizioa, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikarekin (telekomunikazioak barne)** lotutako ekonomiaren jarduera-adarretan, baita **R. Jolas- eta kultura-jardueren** adarretan ere, % 24ko eta % 33,6ko ehunekoekin, hurrenez hurren. Jarduera-adar horietako hiru enplegutik bat, gutxi gorabehera, sormen- edo kultura-jardueretan diharduten enpresei dagokie.

Jarduera-adarraren ikuspegi horri esker, jarduerak motaren arabera sailka daitezke (manufaktura-jarduerak, merkataritza-jarduerak eta abar). Sailkapen hori garrantzitsua da, besteak beste, hainbat jardueraren arteko arazo homogeenak ebaluatzeko, nahiz eta balio-kate desberdinetakoak izan, Jaurlaritzako beste sail batzuekiko elkarrizketa ahalbidetzeko, politikak koordinatzeko, politiken jardunari edo ebaluazioari buruzko adierazleak identifikatzeko eta ebaluatzeko, edo teknologia berriak txertatzeko eskakizun komunak ezartzeko.

Hurrengo taulan, balio-kateen eta jarduera-adarraren arabera identifikatutako jarduera motaren arteko lotura ikus daiteke. Balio-katea eta jarduera-adarra partekatzen dituzten 26 azpisegmentu homogeenak identifikatu dira.

2. TAULA. BALIO-KATEAK ETA JARDUERA-ADARRAK GURUTZATZEA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus- entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administrazioakoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura- jarduerak
ARTE ESZENIKOAK							
ARTE BISUALAK							
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA							
LIBURUAK ETA PRENTSA							
MUSIKA							
ONDAREA, MUSEOAK, ARTX. ETA LIBURUT.							
ARKITEKTURA							
DISEINUA							
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK							
MODA FABRIKAZIOA							
PUBLIZITATEA							
BIDEOJOKOAK							

Iturria. Geuk egina.

KSItzat katalogatutako lanbideetan egindako kontratuei dagokienez, honelako lanbideak dituzten pertsonen kontratu gehien egin dizkieten 20 jardueren artean (2019-2020) 9 jarduera ez dira KSItzat ezarritako perimetroan sartzen (EJSN 4 digitu). Horien artean, kontratu kopuru handia dutelako nabarmentzeko modukoak dira **7860. Aldi baterako laneko enpresetako jarduerak eta 9499. Beste inon sailkatu gabeko beste elkarre-jarduera batzuk**. Kontratuen batez besteko iraupena asko aldatzen da jarduera-adar batetik bestera. **Manufaktura**-jardueren batez besteko iraupena gainerako jarduerena baino luzeagoa da (57,1 egun). Hala ere, **Zinemako, bideo eta telebista-saioetako produkzioko eta produkzio ondoko jardueren** kasuan, batez beste 7 egunetik beherako iraupena duten kontratuak egiten dituzte.

Gainera, oro har, **kultura**-jardueretan KSI profilak dituzten kontratazioen ehunekoa (% 69,6) **sormenezko** jarduerena baino handiagoa dela (% 45,9) ikus daiteke.

Egindako lanaren ondorioz, KSIak sustatzeko politika publikoak aztertzea gomendatzen da, bai Euskadin, bai beste ingurune geografiko batzuetan, baita balio-kateen eta segmentuen estaldura egiaztatzea ere, jarduera-adarren arabera.

Kokatuta dauden balio-kateari eta motari dagokionez, jarduerak askotarikoak izaki, lehentasunezko azpisektoreak zehaztu behar dira eta Jaurlaritzako beste sail batzuekin duten harremana identifikatu, KSIak sustatzeko politikak koordinatze aldera. Alde horretatik, nahiz eta kasu batzuetan oso gainjarrita egon daitezkeen, ongi bereizi behar dira, alde batetik, KSI enpresetarako laguntzak eta, bestetik, jardueren sormenezko edo kulturako osagaia indartzeko laguntzak.

Gainera, autonomo asko daudela eta enpresa txikiak direla kontuan hartuta, hainbat eremutako garapen-planak kolektibizatze/mutualizatze potentzialtasuna aztertzea gomendatzen da. Inplikaturako eragileen parte-hartzearen eta mahai sektorialak ezartzearen bitartez, eraldaketa-planak identifikatu behar dira, sektoreari hiru trantsizioei dagokienez aurrera egitea eta Agenda 2030ekin lotzea ahalbidetzeren.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco